

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Georgette Errecart

*Arberatze-
Zilhekoa,
Nafarroa
Beherea (1937)*

Aurkibidea



Biografia



Georgette Errecart
Arberatzen sortu zen 1937an.
Aita, Jean Errecart (Oragarre, 1909), politikari ezaguna izan zen. Georgettek lehen mailako eskola Arberatzen egin zuen eta Baionako Largenté-n, Donapaleun eta Saint-Cyran-en (Oise departamenduan) ere egona da ikasten. Herrira hurbildu zenean, Euskaldun Gazterian engaiatu zen 1957tik 1962ra eta hor ezagutu zuen Michel Epherre, bere senarra. 1962an ezkondu ziren. Familiatu izanikan ere, bere engaiamenduak segitu zituen, bereziki OGEC-en (irakaskuntza katolikoaren kudeaketa organismoa), baina beti ere bere aitaren eta senarraren ondoan.

Zintak

ZIL-001

- **Proiektua:** Euskal kultur erakundearen artxiboak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lekumberri, Terexa
- **Data:** 2008-07-01
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Haurtzaroa Arberatzen 1937tik 1948ra.

- **Erref:** ZIL-001/001
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Baserria

Laburpena:

Georgette Arberatz Beheitian sortua da, 1937an, lau jenerazione heietan emazten ganik pasatzen zen etxalde batean (17ha). Arberatzeko eskolan ibilia da 11 urte arte. Bere errientsa frantses Errepublikaren defentsaile suharra zen. Georgette ezagutu du ere 1939-1945ko gerla (gutunak pasatzen zituen).

2. Ikasketak Arberatzetik kanpo (1948-1957)

- **Erref:** ZIL-001/002
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:03:42. **Bukatu:** 00:05:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Georgettek 7 urte iragan ditu Baionako Largenté-n breveta ukan arte (bere biziko urte bortitzenak), jin da Donapaleura baxo profesional baten pasatzera (Humanités Féminines- delakoetan berezitua) eta berriz urrundu da Oise departamenduko Saint-Cyran laborantza lizeora (1955-1956). Neska gutti ziren garai hartan holako ibilbidea zutenak.

3. Euskaldun Gazteria

- **Erref:** ZIL-001/003
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:05:54. **Bukatu:** 00:09:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa

Laburpena:

Georgette Errecart azkarki engaiatu da Euskaldun Gazterian 1957tik 1962ra, jakinez mugimendu hau abiatu zela Amikuze aldeko beste berrikuntza batzuen ildotik, hala nola Garikoitzenea lehen laborantza eskolaren sortzea 1952an. Gazte multzo bat biltzen ziren Etxegoien apezarekin (Garikoitzeneko zuzendaria zena), eta ondotik Challet apezarekin. Helburua zuten pentsaketak egitea geroari buruz. Euskaldun Gazteriak lurraren besta antolatzen zuen urtero.

4. Mutil nesken arteko harremanak ezkontzaraino Amikuzen 1950 inguruan

- **Erref:** ZIL-001/004
- **Iraupena:** 0:06:12. **Hasi:** 00:09:56. **Bukatu:** 00:16:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa

Laburpena:

Jende gazteak biltzen ziren herriko bestetan edo ere eguberrikari edo ihauterikari, arratsalde, emaiten ziren dantzaldietan. Ezkongaiak, nahi izan gero, ezkontzarako prestakuntza bat egin zezaketen Beloken bizpairu egunez. Preparakuntza hori segitu zuen Georgette Errecartek, 1962an, ezkondu aitzin (bere gizongaiarekin 4 urtez ibili ondoan). Eztei handiak egin zituen, 200 gomitekin, hauetan apezpikua, gizon politiko frango. Ondotik hiru haur ukan zituen.

5. Emazte girixtino baten engaiamenda Amikuzen (1960tik goiti)

- **Erref:** ZIL-001/005
- **Iraupena:** 0:06:18. **Hasi:** 00:16:08. **Bukatu:** 00:22:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa
- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:

1960 hamarkadatik hasita, Georgette Errecarten engaiamenduak ainitzak dira : haurrak zituen eskola girixtinoetan burrasoen ordezkari (23 urtez), ardura bereziak OGEC delakoan (Organisme de Gestion de l'Enseignement Catholique), Ezkontza Preparakuntzarako Zentruaren sortzaile, karguak ere parropian, Sokorri Katolikoan eta Arberatzeko Herriko Kontseiluan 1970tik 1977ra.

6. Jean Errecarten bizia 1909tik 1945era

- **Erref:** ZIL-001/006
- **Iraupena:** 0:05:55. **Hasi:** 00:22:26. **Bukatu:** 00:28:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

1909n sortua Oragarren, Jean Errecartek 4 anai bazituen eta horietarik bi aski fite ixtripuz galdu zituen (pozoiindaturik). Apez izaiteko gogoarekin, ikasketak Larresoron eta Beloken egin zituen, bainan Bordalen zuzenbidea ikasten hasi zenetik apez izaiteko xedea utzi zuen. Ikasketak bururatu gabe, Euskal Herrira itzuli zen 1932an eta bere anai geometroarekin lanean hasi. Berehala, laborantza munduko sindikalismoari interesatu zen (artoaren erakundea, elektrifikazio sindikata) eta handik fite ezkondu (1935). Munduko bigarren gerla ezagutu zuen .

7. Jean Errecarten ekarpena Amikuzeko gizarteari eta ekonomiari 1945tik 1971ra

- **Erref:** ZIL-001/007
- **Iraupena:** 0:14:58. **Hasi:** 00:28:21. **Bukatu:** 00:43:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Politika » Jarrera politikoak
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Jean Errecart politikari ezaguna zen : kontseilu orokor bigarren gerla bukaeratik hara (1945-1971), deputatu 1946an, senatur 1958an, Oragarreko auzapez 1944tik 1971ra. Laborarien formakuntza bultzatu du Garikoitzenearen sorkuntza 1952an, laborantxako lehen baxoa 1962an, J.

Errecart lizeoa 1968an), bai eta ere tokiko ekonomia (uraren, bideen eta elektrifikazio sindikatak, Lur Berri kooperatifa, Aiziritzeko klinika, Donapaleuko igerilekua). Aurreikuslaria eta aintzindaria zen.

8. Jean Errecart : gizona

- **Erref:** ZIL-001/008
- **Iraupena:** 0:06:06. **Hasi:** 00:43:19. **Bukatu:** 00:49:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:

Kontrako baino aldeko gehiago bazuen Jean Errecartek. Gizon estimatua zen baitzakien jenden biltzen bere ideien inguruan. Sustengu osoa kausitzen zuen bere emaztearen ondoan, hau senarraren itzalean bizi baldinbazen ere, nahitara. Aita gisa ere, larderia bazuen, nahi baitzuen bere alabek etsenplua eman zezaten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com